



AYUNTAMIENTO
del VALLE de EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

“Joaquin Lizarraga Elkanokoa” Euskarazko Narrazio Laburren Saria 2017

Lehen Hezkuntzako 6. maila: 1. saria:

GAIZKAREN GAUZAK

Jone Paz Iribarren

Bazen behin mutil bat Gaizka izenekoa. Gaizkari asko gustatzen zitzaion panpinekin jolastea, soinekoak janzte... “nesken gauzak egitea”.

Egun batean makilatzen ari zela, bere aita komunean sartu zen eta makilatzen ikusi zuenean asko haserretu zen eta zigortu egin zuen. Gaizkak ez zuen ulertzen zergatik zigortu zuen, bere ama makilatzen zen eta ez zuen zigortzen. Horrela gertatu zen egunez egun, makilatzen edo panpinekin jolasten zuenean zigortzen zuen.

Egun batean, Gaizkak, haserre, etxetik alde egitea erabaki zuen. Gaizka desagerturik zegoela, bere aitak kezkatu poliziari deitu zion.

Hurrengo egunean poliziak Gaizka aurkitu eta etxera eraman zuen. Bere aitak zergatik alde egin zuen galdetu zion eta Gaizkak dena azaldu zion. Bere aita, hori entzutean, gaizki sentitu zen.

Egun horretatik aurrera, bere aitak ikasi zuen arrosa, panpinak... ez zirela nesken gauzak eta urdina, kotxeak... ez direla mutilen gauzak, denak denen gauzak zirela.

